

Goibekokale

ELGETAKO ALDIZKARIA

1995eko iraila 5zk

MARTXAN DA IKASTOLA BERRIA

F. IRIBAR
SALBADOR 9-1^a EZK.



Aladeras Gallastegui, s. a.

MENDI UZTIKETA ETA SERRA MEKANIKOA
Azkarreta auzoa 48230 Elorrio (Bizkaia) Tel. eta faxa: 6583061.

ZURE ESKUTITZEN ZAIN GAUDE!

Atal hau zuen eskutitzen zain dago. Bertan kezka, iritzi, galdera, etab. adierazteko aukera duzue. Eskutitzak izena, bi abizen, telefono zenbakia eta NAN zenbakia izan beharko ditu derrigorrez. Gero argitaratzerakoan, eskutitzaren egileak hala eskatuko balu, inzialak edo gaitzizena agertuko dira. Eskutitzen luzera ez da inoiz orrialde erdi makinaz, 15-18 lerro baino luzeagoa izango. Bidali sobrea *Goibekokale* ipinita.

GURE TXOKOA

Batetik, aurreko alean kiroletako atalari dagokion sailean, agertu zen komentarioa argitu nahi genuke.

"H.ABILODOSO-K H.H.H.eko jokalariek ez direla agertzen" esaten zuen H.H.H.ko junta direktiboak bere eskutitzean. Guk ez genuen horrelakorik idatzi. H.H.H.koak partiduak arbitratzera berandu agertzeaz gain, ez zituztela emaitzen papalak behar den lekuan utzi baizik. Hori zen guk adierazi nahi genuena hitz hoiekin.

Adibide honekin argi utzi nahi dugu *Goibekokalen* agertzen dena, erredakzio kontseiluaren onespenezekin idatzia dagoela. Beraz, kartaz edo bestela gugana zuzentzen zäreten bakoitzean, eskertuko genizueke esateko duzuen pertsona konkretu bati bideratu beharrean erredakzio kontseiluari zuzen-tzea.


Bestetik, jakin badakizuen arren, aldizkari honen helburu nagusia euskarren normalkuntzarako bidea eraikitzea dela eta euskara erabiliz komunikazioa lortzea. Horregaitik eta gonbitea luzatuta geratzen da gure hizkuntzaren alde lan egiten dutenekinbat egiteko. Animatu beraz, **Kilometroak eta Nafarroa Oinez**-era joaten. Elgetan %87 gara euskaldunak eta harrotzekoa bada ere, alfabetizazio lanean asko dugu egiteko. Irakurri euskaraz, idatzi euskaraz, bizi euskaraz! **Denon eskuetan dago "Euskararen Geroa"**.

Erredakzio kontseilua.

Argitarapen honen edizioko laguntzailea



kutxa fundazioa



Eusko Jaurlaritzako Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aldizkari honen argitaratzailea

GOIBEKOKALE

Argitaratzailea: Elgetako Gazte Asanblada. Gudarien Bidea 2. Elgeta 20690. Laguntza berezia: Ozkarbi elkarte. Koordinatzailea: Iñaki Etxepare. Erredakzio kontseilua: Iban Aranzabal, Gaizka Bolinaga, Haritz Gallastegi, Ana Gillegi eta Bittor Gallastegi. Erredakzio laguntzaileak: Iñaki Erostarbe, Gorka Arizmendiarieta, Juan Ramon Irazabal. Maketazioa: Bittor Gallastegi. Euskera arduraduna: Iban Aranzabal. Argitaratzaileak: Julen Markiegi, Beatriz Zabalondo eta Jon Aranzeta Ulazia. Administrazioa: Esti Retolaza, Susana eta Olaia Juaristi. Argitaletxea: EGA. Posta-boketaren zenbakia: 1135-3538. Tirada: 400 ale. Inprimategia: GERTU koop. (Zubillaga Oñati). Copyright-a: EGA. Lege-Gordailua: SS-1980/1363.

Goibekokale ez du bere gain hartzen, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.

Oporren gainean erre-flexioa



Ez dakit nondik hasi, baina nunbaitetik hasi behar. Oporrak pasau dia eta elgetar guztiak esaten dabe oso ondo pasau dabela egon dian tokietan. Baita pilak kargauta etorri diela lanean hasteko.

Oporren hasieran galdetu ezker, nora zoaz? Baten erantzuna Jaenera; beste batena Deniara; hurrengoarena Argentinara.... Eta oprretatik etorritakuan, entzuten dia honelako erantzunak: "sekulako berua egiten zaben, egunez ez zagoen modurik kalean egoteko".

Baina beroa balitz oztopo bakarra! Eta ura gehitzen danian beroari honelakoak entzuten dia: "lau ordutako ura zagon egunian zihar eta lo geratzen bazina, ez zagon dutxa hartzeko modurik, ez ontziak garbitzerik".

Bidaia organizatukua bada, mundua ikusi, ikusi egiten da, baina egun santu guztian gaude harutz eta honutz maletak gainian hartuta eta gorputza kantsauta.

Nik behintzat askotan galdetzen diot neure buruari, oporrak gorputza deskantsatzeko ala kantsatzeko diran? Bestela galdetu etxeoandreei. Ez danetan, baina kopuru haundi batean, zenbat deskantsatzen daben Elgetatik kanpo egonda edo Elgetan egonda? Ziur nago bere erantzuna izango dala, ia,ia etxean beste lan egiten dabela kanpoan. Inoiz galdetu diozu etxeoandreei?

Inoiz galdetu diozu zeure buruari ezagutzen dot Euskal Herria? Ziur nago ezetz. Zenbat tokitara heldu gara eta zenbat toki ezagutzen dugun; baina goguru nago, ez dugula ezagutzen geure herria.

Neuk behintzat Elgetan pasatu ditut oporrak, eta zoriontsu sentitu izan naiz egon dan ixiltasunarekin; ez kotxe, ez ume zaratarik... Bakarrik, Elgetako plazako paguen azpian txorien kantuek entzuten... Nik behintzat lanari deskantsatuta ekin diot, eta zuk?

Ez dozue pentsatu oporrak ehun metroko laisterketa baino lehenago pasatu diala?

Julen Markiegi

Kanpotik ikusita



Asmoa beste bat genuen, idatzi ere idatzi genuen gutuna. Baina ardoa bezala "ontzen" utzi genuen ordenadorean gordeta. Bien bitartean, egun batean jarri da martxan "Makuto Irratia" eta, gutxien espero genuena, hara non iristen zaigun sail honetarako enkargua! Egia esan, hain dotore eskatu ziguten idazlana moldatzeko... ezin ba ukatu! Eta hona, atsegin handiz, gure hondar-alea.

Aitortu behar dut, *Goibekokaleren* berririk ez nuela izan apirilerarte. A ze poza hartu nuen! "Elgetako gazteria BIZIRIK dago", izan nuen lehenengo pentsamendua. Batek baino gehiagok esango du, "honek mundua deskubridu bihozku". Eta behar bada ez du arrazoi faltarik izango. Iritziak iritzi, harrezkero zain-zain egoten naiz noiz iritsiko, goitik-behera irakurtzeko. Baina gurean "estimau dago" aldizkaria. "Aber zeinek kentzen dotzan eskutik Joxepari! Makala jartzen da ba bera, Elgetako rebestia irakurri bihadabela-ta". Gero aitaren txanda izaten da normalean, eta gazteona ondoren.


Dudarik gabe, kanpotik ikusita xarma haundia dauka. Atsegina da, erakargarria, orotarikoa, adin guztietarakoa, eta hori guztia gutxi balitz, maila handikoa. Gainera, badakit zenbat lan eskatzen duen hilero-hilero ale bat prestatzeko, taldea martxan jarri, diseinatu, kolaborazioak eskatu, ilustrazioak egin, maketatu, zuzendu, pruebak begiratu... Publizitatea lortu, kontuak egin, inprentara eraman, ekarri eta banatzeak... Egundoko lana dago orrialdeon atzean! Eta erronkari ekiteko BIZIRIK egon behar da, gogoa eduki, eta asko saiatu...

Laguntzeko ez bada ere, ez diezaiegula trabarik jarri ekimen hau aurrera ateratzeko ilusioa jarri dutenei!

Pentsatzen dut elgetar gehienak bat etorriko direla nirekin, baina bihoakizue gure etxetik ZORIONAK *Goibekokalekooi!* Jarraitu orain arte bezala eta eutsi goiari!

Bea Zabalondo

KOMIKIA



ESKOLA BERRIAN, BEHIN-BEHINEKO SEGURTASUN ARAZOAK KONPONDUTA, HASI DA KURTSOA

Bizpauru aste pasatu dira Elgetako eskola berriak bere barnean hartu dituela kurtso berriko ikasle eta irakasleak. Ia bi urtetako lanak izan dira eta duela hamar urte proiektatu zen asmoa burutu da azkenean.

Eskola bat baino gehiago.

Eraikuntza haundi honen barruan, lehen hiru solairuak dira eskolen erabilpenerako; atikoa eta azpiko banaketa, udale-txearnak dira. Hain zuzen ere, denborarekin, udal biltegi bat eta auditorium bat egitea proiektaturik dago eraikuntza honetan bertan.


Urbanizazio lanak ez dira oraindik hasi eta gurasoen batzordetik jakitera eman denez, 20 milioitako gastua suposatuko du udaletxeak adieraztera eman diez. Arrazoia, eskolak egiteaz gain, beste proiektu batzuk gehitu direla da: auditoriuma... Aldiz, hauek egin ez balira, delegazioak berak ordain-

duko zukeen urbanizazio gastua.

Kurtso hasiera atzeraturik.

Hautsugari astindu du kurtso berriaren hasierak. Irailaren 11an hasi beharrean, gurasoek eta irakasleek hartutako erabakiaren ondorioz, segurtasun arazoak konpondu bitartean haurrak ez bidaltzea erabaki zen. Egun bateko atzerapenez hasi ziren beraz 95-96 ikasurteko klaseak.

Delegazioko arkitektuak behinbehineko irekiera eman zion. Irakasleak sartu zirenean ordea, gauzak behar bezala ez zeudela



Segurtasuna ez zen ona; metro batzutako zuloa zegoen.


ikusi zuten; batik-bat haurren segurtasunari zegozkionak. Eskolako sarrerak eta eskolaurreko umeen jolastokiak egokitu egin behar izan ziren aglomeratuzko hesiak ipiniz, istripuak ekiditu nahi baitziren. Gurasoek "txapuza-

tzat" kontsideratu zuten irtenbidea; "provisionalki ondo badago ere, laister usteltzen den materiala da".

Irakasleen esanetan berriz, "atzetik ibiliko gara hori behar bezala ipini arte. Esan digutenez, eraikuntza egin duen enpresaren eskuetan dago hori; berdin gertatzen da, sarreran sortzen den putzu eta itokinekin ere, enpresak konpondu beharko ditu".

Beste arazo batzuen artean, garbiketarena dago. "Ekainetik eman genien abisua gurasoek eta irakasleek, udalak norbait garbitzera bidali zezan. Hasieran pertsona bakarra bidali zuten irakasle eta gurasoek hasi ginen garbitzen. Azkenean hiru bidali zituzten udaletxetik".

Argi indarra irailaren 11an bertan eman zen eta aurreko egunetan, materiala, altzariak eta segurtasun hesiak jarri ziren. Horrela, oinarrizko baldintzak den-



Haur txikien jolasleku amaitu gabean, arriskua zegoen. Orain, behin behinekoa bada ere, konponduta dago

OSTATU
DATEXER

Gudarien Bide
Tel: 76 80 23
ELGETA

Eguneko menua 800 pta.
Karta

rosle

M. Asun Agirre

Salbador 26. Tel: 768190



KONTXI
ARRANDEGIA
Salbador 5 Tel: 768009

bora laburrean konpondurik gelditu dira ikasturte hasiera gehiago ez luzatzeko asmoz.

"Ez jakin bezala tratatu gaituzte".

Irakasleek beraien desadostasuna adierazi zuten hitz hauekin. "Arkitektuak guk esandakoari kasu gutxi egin diote. Arkitektuekin udaletxean batzar bat eskatu genuen lanak nola zioazen jakiteko asmoz; bilera honetan, nahiko gaizki tratatu gintuzten. Baina argi dagoena da, eskola asuntuez norbaitek badaki gu garena".

"Adibidez, eskola barruan dagoen baranda, umeentzako arriskutsua izan daitake, eta kexatu ginenean oso polita zela eta diseinua mantendu behar zela esan ziguten. Guk aldiz praktikotasuna nahiago dugu; beraz altuera emateko landare batzuk ipintzea pentasatu dugu inor erori ez dadin".

Pazientzia pixka bat.

Alkateak konponketen berri eman zuen irakaskuntzako batzarrean. Premiazko eta garrantzitsuenak ziren arazoak konpondutzat eman zituen. Bestetik, udala, delegazioarekin jarri da harremanetan, konponketa batzuk beraien lana direlako. Era berean, pazientzia pixka bat eskatu zuen eta urriaren bukaerarako materiale guztia hemen izatea espero zuela gaineratu; udala dagoeneko kontaktuan dago enpresa hoiekin.

Jolasleku estalia.

Haurrek, betiko lekua erabiltzen jarraituko dute jolasteko. Irakasleen ustez, "huts haundia da horrelako eskola haundia egin ondoren aterpedun jolaslekua ez izatea". Bitartean, udale-txeak euria denerako, bi gela utzi ditu. "Ikastola polita da, gatozen tokia kontutan izanik, zoragarria da".

PESAko AUTOBUSEN ORDUTEGI BERRIA

Autobus konpainia hau Eusko Trenbideaken barruan egongo da. Honek PESA Eusko Jaurlaritzaren barruan sartzea suposatzen du. PESA autobus konpainiak pasa den urtean, 100 milioitako galerak izan zituen; beraz, berrantolaketa egin beharrean aurkitu zen. Kontutan izanik bere esku daudela Gipuzkoak gainontzeko probintziekin dituen komunikabideak, Eusko Jaurlaritzaren bitartez, konpainia sare publikoan sartu dute. Ondorioz aldaketa ugari ekarriko ditu hemendik aurrera.

Elgeta ere, Bilborekin eta Donostiarekin, zerbitzu honen bitartez lotzen da, ordutegi murrizketaren ondorioz, nahiko kaltetua geratu da. Orainarte izan ditugun 8 zerbitzuetatik lau izatera pasatuko baikara.

Udaletxean batzarra egon zen arazoaz hitzegin eta soluzio bideak aurkitzeko asmoz. Bi aukera berriz hitzegin zen. Lehena eta hilabete barru martxan jarriko dena, Elgeta Eibarrekin lotuko duen linea da. Horretarako egunean behin autobus bat etorriko da Eibartik jendea jasotzera eta iluntzean, Eibarretik Elgetara ekarriko ditu berriz. Honela Donostia edo Bilbora joateko, zein inguruko

herrietara heltzeko, Eibartik egingo dira komunikabideak.

Proposamen honek arrisku bat du, linea hau jendeak ez badu erabiltzen kendu egingo dutela, eta berriz berdin geundekeela.

Bigarren proposamena, taxi edo mikrobus bat ipintzea litzateke eta Gatzagan egiten den bezala, aurreko egunetik abisua eman, Eibarrera, Arrasatera, Bergara edo Elorriora eramateko. Hala ere honek momentuz ez du erantzunik izan.

Hauxe litzateke ordutegi berria:

Elgeta-Bilbo.

Astegun eta Larunbatetan:
8:50 18:20
Igande eta Jai egunetan:
10:20 18:20

Elgeta-Donostia.

Astegun eta Larunbatetan:
8:50 17:50
Igande eta Jai Egunetan:
9:50 17:50

Bergara-Elgeta-Bergara.

Bilborekin lotzeko eta Astelehen-etik-Ostiralera:
Bergara-Elgeta: 13:45
Elgeta-Bergara: 14:05

EGaren ikastaroak arrakasta handia dute.

Elgetako Gazte Asanbladak Irailaren 18an hasita, trikitixa, hankapalo eta txalaparta ikastaroak antolatu ditu. Izen emandakoak 90 pertsonatik gora dira. Adib: sueltoa

ikasten 50 pertsonatik gora daude.

Antolatzaileak espero ez zuen jendetza apuntatzeak ikastaro egun bat baino gehiago jartzea eragin du. Ziur zuretzat ere lekua dagoela. EGAkoak esku zabalik daude.

**GORROTXATEGI
HARATEGIA**

Andra Mari Plazan zure etxetik gertu.

Tel: 76 81 72.

PANADEROKUA TABERNA

CONCHI IDIGORAS
LARUNBATA ETA IGANDETAN
BERTAKO BABARRUNAK
SAIHESKIA ERRETA

ELGETA

TEL. 76 82 73

Zer pentsatzen jatzu eskola barrixen proiektua?




Arantxa Askasibar
Etxekoandria (34 urte)

Ni proiektuan ez naiz egon sartuta, baiña Elgeta baterako eskolia haundixegia pentsatzen jata. Eta halako eskola haundixa izan eta jateko leku txiki bat ez dabela ipiñi bai baserriarrentzako bai kalekuentzako.



Karlos Ormaetxea
Bihargina (33 urte)

Bueno, beste egunian egon nitzan edifizixua ikusten eta interesgarria dirudi, baiña nik ez dakit ezer proiektuaren gañian. Dana dala, ikastolia ez ei dago kondiziñuetan.



Mikel Aranzeta
Bihargina (39 urte)

Alde batetik, ondo dagola pentsatzen jata, baiña edifizixua larregikua da. Asko falta da dana amaittuta egoteko eta amaittu artian ezin da emon iritzi zehatzik.




Mirari Larrañaga
Etxekoandria (36 urte)

Haundi samarra pentsatzen jata, baiña oso politta. Oso gaizki pentsatzen jata hainbeste diru gastau eta gero, esaten dabenez 300 miloiko presupuestua da, ume txikixen eskolan detalle oso inportantiak falta izatia seguritate aldetik.



Begoña Ardanza
Etxekoandria (51 urte)

Ondo dago, pentsatzen dot ez dala haundixa; Elgetarako premiñazkoa da. Pentsatzen dot falta dana laster amaittuko dabela.



Balentin Elorza
Bihargina (42 urte)

Ondo pentsatzen jata; aurreko baten egon giñan begira guraso danok eta planteau zan alkatiari deitzia, balla batzuk eta falta zian eta.



URONDO
elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola, 26. Kataide industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa.
Tel: 797815/771042 Faxa: 771476 ARRASATE.

VIVO
JANARI DENDA

M^a JESUS
ARRAZOLA

Tel: 76 81 31

ELGETA

- **Urriak 1: Kilometroak** (Donostia) EGAK autobusa antolatu du. 1000pta.
- **Urriak 8: Intsumiso eguna** (Bermeo) EGAK autobusa antolatu du. 1000pta.
- **Urriak 25: Nafarroa oinez** (Tutera) EGAK autobusa antolatu du. 1300pta.

* Izen emateak Haizean.


- Jubilatu eta mantenimenduko soinketa

Mantentze astean hiru saio
 Astelehena (7-8, 8-9)
 Asteazkena (7-8, 8-9)
 Osteguna (7:30-8:30) pesak eta makinak.

3. adina astean hiru saio Astelehena, Asteazkena eta osteguna.

- **Marrazki eta margo klaseak:** Haur eta Helduentzako.

Izen ematea udaletxeko kultur sailean Antolatzailera Elgetako udaletxea



MIREN ARANZETA HARAKINA

- **Zer moduz oporretan?** Oso ondo, goixian lana eta atzaldian fiesta.
- **Noiz eukitzen dozue lan gehixen?** Gabonetan esan biakou lan gehixen dagola.
- **Okelia asko kontsumitzen da Elgetan?** Herri

txiki bat izateko asko.

- **Okelia ala arraina?** Ni ez naiz joaten peskaderixara eta ni okeliakin oittuta nago.

- **Dantza egitea gustatzen jatzu?** Bai, bai, bai. A ze kilometroak ein dittuten dantzan, trikitixa, pasodoblia,...

- **Telebista ikusi ala irratia entzun?** Bixak gustatzen jataz.

- **Programa gustokoenak?** Goixeko lauretatik zazpietara egoten dana radixuan lokutore ejenplar bat, Florenzio Torrebidol.

- **Zerk emoten dotzu bildurra?** Gerriak, terrorismuak, bonba atomikuak, lapurrak,...

- **Etxian hainbeste izanda ondo konpontzen zarie?** Ondo, oso ondo.

- **Jantzi estuak ala zabalak?** Estuak eta ondo markauta baina neretako zabal zabalak, potolia nago ta.

- **Gazteentzat zerbait falta da Elgetan?** Gauza asko, Beste herrienganako komunikaziñua, zinia, teatrua.

- **Zer pentsatzen jatzu EGAK egiten daben lana?** Bai, bai, bai. Oso ondo, oso ondo; zorionian eitxen dozue, bestelan zer egongo zan herrixan? Gu ez gaoz sasoiari eta gaztiak egin bihakozeu zeozer.

- **Zer pentsatzen jatzu eskola barrixen proiektua?** Nik eztoz aitzen askohorren gaiñean, baina ikusten dot edifizio ederra egin dala eta lehen umiak partituta egoten zian eta oin danak junto.

- **Gizonentzat gorbatia ala pajaritia?** Bueno, gizonak bapebarik pe ondo dagoz, baina neri korbatia gehixau gustatzen jata. Pajaritia kantantiena da.

- **Nori erregalauko zeinkio lore txorta bat?** Nere senarrai, ondo portau dalako eta bizitza guztian oso maitakorra izan dalako.

- **Karta joku bat?** Askotan ez dot eitten baina briskan.

Horroroskopoa

♈ Aries: Bai ala... Ez ala...Badaezpada erabaki zuzena hartu.	♉ Taurus: Zure begiradak ez dauka hitz beharrik.	♊ Geminis: Fresazko txupatxusa baino ezpain gorriagoak dituzu.	♋ Cancer: Oraingo hilean sorte ona duzunez aprobetxatu.
♌ Leo: Trenean ibili zaitetz aspaldiko partez.	♍ Virgo: 1, 2, 3, ... klase partikularrak behar al dituzu 4, 5 eta 6 kontatzeko?	♎ Libra: Askotan ixilik gelditzen bazara hobe, ez dizu kalterik ekarriko eta.	♏ Escorpio: Ba dakizu hiztegia erabil-tzen? Aste bukaeran erabili... ziurtatzeko.
♐ Sagitarius: Tele- 5 baino anuntzio gehiago egiten duzu, zaindu jaskera.	♑ Capricornius: Zuei ulertzea jeroglifikoak egitea baino zailagoa da.	♒ Acuarius: Gezurretan? Everest gailurra baino sudur handiagoa egin behar zaizu.	♓ Piscis: Larunbat gabetan egiten dituzun pelikulak, Almodovarrenak bezalakoak dira.

ER HARATEGIA
ASTI
 San Roke 6
 Tel: 768168.

Goio Sarasua
 Igeltzeritza lanak
 Teilatuak Sukaldeak
 Etxaurreak Komunak
 Otzango Behekoa Baserria. Tel: 860156

M^a Karmen Lenzeria
 Lenzeria eta kosmetika gaiak.
 Salbador zeharbidea.
 Tel: 78 90 40

ALAITZ EGIZABAL: "OBISPOAK BERE EGINKIZUNA BETETZEN BADU BERDIN DIO NONGOA DEN "

Alaitz Egizabalek, 18 urteko Elgetar gazteak, bere REMeko ikasketak amaitu ondoren, gaur-egungo gazteetan oso ohikoa ez den bidea hartzea erabaki du: Klausurako monja joatea. Ojanguen baserrian bizi den neska honekin elkartu gara, oso ezaguna ez den bizimodu honetaz pixkat gehiago jakiteko asmotan. Berak adierazi digunez "klausurako monja joateko erabakia, Jaungoikoa eta nire artean gertatutako zer-baiten ondorioa izan da".

-Zerk bultzatu zaitu monja izatera?

Nire familia betidanik izan da oso kristaua eta beti joan izan gara elizara. Horretaz gain, otoitz egiterakoan Jainkoarekin harremanetan jartzen zara eta denborarekin sentiarazi zidan monja izan behar nuela.

- Zer da fedea zuretzat?

Fedea, Jainkoak emandako erregali bat da. Fedea, ikusteko errazak edo sinisteko errazak ez diren gauzetan sinistea da. Adibide garbiena Jaungoikoa da; nahiz eta ez ikusi berarengan sinisten dugu.

- Nor izan da erabakia hartzerako orduan gehien lagundu zaituen pertsona?

Ez nuke jakingo galdera horri nola erantzun. Jainkoa eta nere arteko gauza izan da.

- Ez zaizu iruditzen errealitateki kanpora gelditzen dela klausurako monja joatea, gizartean dauden arazoak alde batera utzita?

Hori fede asuntoa da. Federik ez duen pertsona baten ikuspuntutik begiratuta hori pentsatu daiteke, baina kristau edo fededun baten ikuspuntutik begiratuta hori ez da horrela, lehenengo otoitz egin behar delako eta horren bitartez beste gauza guztiak egiten lagundu. Beraz, fededun batentzat ez da gizartean dauden arazoak alde batetara uztea.

- Zein da zoazen elkarteko monjen eginkizuna?

Beste klausurako konbentu batzuen antzerakoa da. Batez ere erreza-tu egiten da eta horretaz gain aipatzekoa da ateratzen duten dirua beraiek egindako lanaren bitartez lortzen dutela (josten, pastelak egiten...), ez dute kanpotik dirurik

jasotzen.

- Monja izatea erabaki zenuenean, zer esan zizuten etxekeok eta lagunek?

Etxekoei, normala den bezela hasieran kostatu eginzitzaien klausurako monja nindoala ulertzea baina denborarekin onartu egin dute; lagunek, berriz, ikasten jarraitzeko eta horrelako gauzak esan zidaten, baina nik argi izan dut hasieratik monja izan nahi nuela.


- Zer iritzi daukazu obispoaren hautaketa dela eta ez dela sortu den eztabaidaz?

Azken finean berdin dio obispoa nondik datorren. Arrazakeria eta horrelako arazoak ekiditzea nahi ditugu, beraz ez dut uler-



Alaitzek Elgetako plazan eserita egoteko aukera gutxi izango du hemendik aurrera.

"Etxekoei kostatu egin zitzaien klausurako monja nindoala ulertzea, baina denborarekin ulertu egin dute"



Jesús Mari Montiel
ITURGINTZA
ETA BEROGAILUAK
Salbador 12 Behea
Mo: 908773950 Eibar Tel: 700719

KONPONKETAK SUKALDE
ETA BAINUGELATAN



Galdaragintza arina
Hoditeria
Errementaritza
Soldadura homologatuak

Antonio Rodrigues Da Cruz

BERRIONDOKUA INDUSTRIALDEA, 8 - ELGETA
Tel: 76 81 01 Faxe: 78 90 14

tzen zergaitik ez duten kanpoko obispo bat ekarri behar. Bere eginkizuna ondo betetzen badu eta santua izaten bada nahikoa dela uste dut.

- Politika eta erlijioa bateragarriak direla uste al duzu?

Ez. Politikak alde batetik joan beharko luke eta erlijioak beste alde batetik.

- Homosexual, bisexual... eta antzeko harremani buruz zein iritzi daukazu?

Jaungoikoak gizonak eta emakumeak zerbaitegaitik egin zituen. Nik pertsona bezala errespetatu egiten ditut, beraiek ere arazo-

ak badituztelako, baina ez nator bat duten ideiekin.

- Zer sentiarazten dizute Yugoslabia ohian, Ruandan eta beste zenbait lekutan gertatzen ari diren gatazkak?

Pena handia ematen didate. Tontakeria bat iruditzen zait pertsona gutxi batzuegatik sortzen diren istiluak, baina azken finean errudunak gu gara, gizakiak.

- Nori egotziko zenioke mundua banatuta (industrializazioa-hirugarren mundua) egotea?

Gizonaren errua da. Agintariek nahi izango balute ez

legoke horrelako arazorik, baina egoismoa eta beste zenbait arrazoi direla medio bakoitzak nahi duena egiten du.

- Euskal Herriak bakea lortuko duela uste al duzu?

Ez dakit. Nik behintzat errezatu dut munduan pakea egon dadin.

- Erlijioaren ondorioz sorturiko gudak (integrista...) zer pentsarazten dizute?

Erljioaren barnean denetik dago, onak eta txarrak. Dena dela haserrea eta gerrak ez lirateke egon behar.

Bapatean:

Ikusi duzun azken filmea? "La septima profecía"

Zer daukazu poltsikoan orain? Errosarioa, San Juan de la Cruzen liburu bat, muku zapia, giltzak eta bi relikia.

Karta joku bat? Tutea.

Zein hortzore erabiltzen duzu? Elmex.

Jaso duzun azken oparia? Biblia bat, brebiarioak eta Mariaren liburu bat.

Gehien atzean duzun kirola? Futbola.

Hamburgesa ala txuleta? Txuleta.

Musika talderik gustokoena? Gen Rosso.

Soldaduzka bai ala ez? Ez.

Gaua ala eguna? Biak.

Lau edo bost hitzetan definitu:

Gizakia: Jainkoak egindako gauza polit bat.

Hilketa: Deabruaren lan bat.

Amodioa: Bizitzako dohai bat.



Alaitzek ez zuen inongo oztoporik ipini elkarrizketa egiteko orduan.



I
L
E
A
P
A
I
N
D
E
G
I
A

M^a ESTHER

Tel: 76 81 67

P
A
T
X
I

T
A
B
E
R
N
A

Salvador 3
Tel: 768093

Fernando
Ojanguren

M^a Jesus
Mujika



Ingelesa Elgetan

Maila guztiak.

Informazioa Biltegi Dendan emango
da

ZER DA POLITIKA?

Galdera hau hedadetuagoek ere ez dakigu nola erantzungo luketen, izan ere ez baita erreza. Hala eta guztiz, haurrei ez zaie hitzik falta izan. Erantzunak ikusirik, politikoeak kasu handiagoa egin beharko die haurrei hurrengoan erantzunak hobeak izatea nahi badute behintzat.

Iraitz: 7urte



Ba... Adibidez, Felipe Gonzalez eta horrek egiten dituzten elkarrizketak. Xabier Arzalluz, Felipe Gonzalez eta horrelakoak. Adibidez: pizina batzuk egin behar direla edo ez direla egin behar politikoeak erabakitzen dute.

Alexandra:

7urte



Politikoeak zatarrak dira, gerra nahi dute, galdera asko egiten dituzte... Felipe Gonzalez eta hoiak dira. Askok haserretzen dira, berba asko egiten dute eta ur asko edan berbetan daudenean. Millonarioak dira eta juizio askotara joaten dira.

Iker: 7urte



Musean ibiltzen dira, tranpak egiten dituzte eta gainera gehiegi agintzen dute. ah!, eta zezenetara irteten dira. Barregura ematen dute.

Gehiegi agintzen dute, txuloarena egiten dute, gerra nahi dute. Nahiko tontoak dira eta beti besteen asuntuetan sartzen dira.

Leire:

8urte



ANA LIBURUDENDA

LIBURUAK
JOSTAILUAK
ALDIZKARIAK
ESKOLARAKO TRESNAK
Salbador kalea 1, Tel: 76 80 78 Elgeta



IRAMA

ELEKTRIZITATEA

INSTALAZIOAK ETA MANTENTZE LANAK
24 ORDUKO ZERBITZUA MENSATEL: 900282828
Abonatua 247262 Tel: 789057- 768025 Salbador 3



DENBORAPASA

L	U	G	F	U	A	E	A	R	G	I
N	O	G	F	L	I	G	N	I	E	G
H	U	L	E	E	P	O	A	P	G	O
O	L	O	R	E	A	N	B	A	R	R
P	I	L	D	A	I	N	G	Z	O	H
L	J	A	B	A	Z	A	L	A	R	J
Z	U	I	E	B	L	E	M	Z	H	I
K	A	A	R	I	Z	A	I	U	I	T
X	N	R	O	R	I	R	E	H	T	S
I	A	G	T	R	E	A	W	E	A	K
U	G	I	A	Z	T	I	R	A	H	P
A	H	A	M	A	A	N	A	B	A	U

Hizki sopa honetan zazpi neska-mutilen izenak aurkituko dituzu. Ez da bat ere zaila.

Izenak Atzekoz aurrera, goitik - behera eskuinetik ezkerreara, behetik-gora nahiz diagonalean aurkitu ditzakezue.

Animatu zaitezte!

LEHIAKETA

Oihana Kortazarrek jaso du lehiaketako saria, aurrekoan egindako galdera asmatu baitu. Argazkian agertzen zen pertsonaiaren izena galdetzen genizuen eta **Martin Elorza** zen erantzun zuzena. Martin Elorza, Elgetan jaio zen 1899ko abenduaren 30ean. 25 urte geroago apaiz egin zen eta 1953. urtean gotzai pasiotar. 1966ko abenduaren 30ean hil zen Liman. **Oihanak** ere bazekien nonbait zein zen, beraz, Elgetako Gazte Asanbladak oparitutako kamiseta berak jasoko du. **ZORIONAK!**

Oraingo honetan ez hasi zein izango den begira baizik eta zer den eta non dagoen. Lekua eta argazkian ageri den "tramankulua" asmatu beharko dira kamiseta eskuratzeko.

Moztu azpiko paper zatia eta bidali *Goibekokalera*. zorte on!

Izena eta abizena: _____

Erantzuna: _____

Bizilekua eta telefonoa: _____

ELGETARRAK BIDAIARI

Bi leku ezberdinez gain, bi bidaiatzeko modu ezberdin dira Iker Irazabalek kontatzen diguna alde batetik eta M^a Asunek eta Anek kontatzen diguna bestetik. Batzuk, abioia hartu ondoren urrun ikusitakoa hurreratuko digute lerro hauen bidez (kultura ezberdinak, telebistaz ezagutzen ditugun lekuak...) besteek ordea, nahiago izan dute kilometro gutxiago egin eta Euskal Herria hobeto ezagutzea.

Ezberdintasunak ugari dira bi bidaion artean eta ziur ekonomiak ere zeresana izan duela. Bidaia aukeratzeko norbere poltsikoari begiratuta ekin diotela bidaiatzeari seguru, dena den, hurrengo oporretarako gero eta egun gutxiago geratzen dira eta bakoitzak aukera dezala nora joan daitekeen.

Guk gure aldetik honako proposamen hauek luzatzen dizkizuegu.

NAFARROATIK IPARRALDERA

Super bidaiak modan dauden honetan, Kenia, Brasil, Txina... Euskal Herrian barrena lau egunetako bidai bat kontatzera noakizue askotan ezezagunagoak baitzaizkigu gure inguruak, urrutiko parajeak baino. Beraz, txango polit eta merkea egin nahi izanez gero, batek hotel eta nekazal turismozko etxez ahaztu eta kanpin denda prestatu; bestetik, jatetxeak utzi eta otartekoetara eta "menditar" erara egindako arrozera ohitu baino ez duzue.

Lehenengo egunean Elgetatik atera eta Auritzerantz abiatu ginen. Nafarroa ipar-ekialdean kokaturiko herrixka hau, kale estu batek zeharkatzen du. Pirinear tankerako teilatuak gailentzen dira, 1000 metrotara dagoen herrixka honetan. Orreagatik 3 kilometrotara bizi diren herritar hauek, abeltzantzan eta baso uztiaketan aritzen dira. Hurrengo bi egunetan Europan parekorik ez duen basoetan barneratu ginen. Iratiko oiha naz ari natzaizue hain zuzen ere.

Oihan honek bizikletaz edo oinez, pista ederretan nahiz zuhaitz tartean galtzen diren bidezidorretan barrena joateko aukera eskeintzen du. Bertako ibai, haran eta tonrorrak mirestu ditzakegu; benetan oihan bizia dugu, amurrain, basur-

de, orein eta bestelako animalia eta landareez jantzia baitago paradisu hau. Hala ere, hondamendia eta paradisuaren muga, erraz gañdi daitekeen lerroa da. Honen lekuko dira hainbat debeku ohar: "debekatua akanpatzea", "debekatua landareak hartzea"... Oraindik badaude sua piztu edo zaborrak jaurtitzeko dituzten "kalamidade" batzuk, baina gutxiengo da.

Orbaizetako arma fabrika zaharra, Otxagabia eta ingurutako haran eta herriak ere bisita daitezke. Denetan aurki daitezke zerbait interesgarria: etxaldeak, larreak...

Orreagatik Ibañeta gaina pasa eta bertan dugu Donibane Garazi. Larunbata zen, merkatu eguna, denetarik aurki zitezkeen. Kale, txoko eta dendaz betetako hiria da.

Iparraldean barrena jarraitu genuen martxa. Harritu gintuena, toki zoragarria izateaz gain, batek bestera dagoen distantzia laburra izan zen. Donibanetik atera eta Isturitzeko koben aurrean ginen. Merezki du leize hauetara hurbiltzea. Interesgarria izan zen baina

gidatu gintuen mutil hark ez zekien euskaraz eta hare gutxiago guk frantsesez. Egoera hau behin baino gehiagotan sufritu behar izan genuen (batik-bat Lapurdi aldean gertatzen omen da fenomeno hau). Zuberoa eta Behe Nafarroan euskaldun kopurua handiagoa da. Beraz, ingelesez ulertu behar izan genuen elkar.

Senpere, Azkaine, Bidarte, Hazparne, Sara, Uztaritze, Getari... bisitatu genituen. Beste baterako utzi ditugu Zuberoa eta Erronkariko bailara.

Ikasleak izanik, diruari so egin behar izan diogu, beraz, lau egunetako ibilaldi hau 8.000pta kostatu zitzaigun bakoitzari, gasolina, janaria, kanpinga, sarrerak eta kapritxoren bat edo beste barne.

Pozik etorri gara, merezi baitu Euskal Herria hobeto ezagutzea. Badugu zertaz harrotu!



Erregadiorako erabiltzen den Irabiako lakua ur gabe.

BOLATOKI TABERNA-JATETXEA

Berezitasuna: Buztana.

Pintxo goxoak, otartekoak.

Elorrio bide z/g Elgeta. Tel: 943/768284.

ALDI DENDA (GRUPO IFA)

IGANDE GOIZETAN ERE ZABALIK: 9-12.

Andra Mari Plaza 2. Tel: 76 80 98.

NEW YORKETIK CANADARA

Urte guztian oporrak hartzekoirrikitan egon ondoren, abuztuaren 7an Ifar-Ameriketako bi lurraldetara abiatu ginen, Estatu Batuak eta Kanadara hain zuzen ere. Gure asmoa ez zen bakarrik turismoa egitea, baizik eta kultur, jende eta toki ezberdinak ezagutzeko.

New York-en taldekideak ezagutu genituen, potaje ederra; Argentina, Mejico, Brasil, Portugal, Espainia..., denen artean bi euskaldun, gu biok. Hori bai denok ondo ulertzeko hizkuntza bakarra erabiltzen genuen, erdara. New York-en gaua pasa ondoren, Filadelfia-ra abiatu ginen: Hiri honek ez du berezitasun haundirik, bertan aurkitzen dira "Askatasunaren kanpaia" eta Estatu Batuak independentzia lortu zuen eguneko idatzia.

Filadelfia-tik Washington-era, toki ikaragarria eta interesantea. Hemen Kapitolioa, Lincoln-en omenez eraikita dagoen monumentoa eta abar ikusi ondoren, Arlington-go kanposantuan egon ginen. Hemen munduko bi gerrateetan parte hartutako milaka hildako daude. Bertan daude lurperatuak John eta Robert Kennedy anaiak eta orain dela gutxi hil den Jackelin Onnasis, lehenengoaren emaztea.

Washingon-en jarraituz, "Etxe Zuria" edo "Casa Blanca" deitzen diotenaren aurrean Vigoko emakume bat aurkitu genuen: 17 urte daramatza munduko bakearen alde eta gerra nuklearren aurkako ekintzak egiten. Bertatik pasatzen diren turisteri ere informazioa banatzen die. Gau eta egunak ematen ditu pankarten aurrean; poliziak ere askotan eraso egin dio, bai

na ezertxo ez dute lortu.

Estatu Batuak laga ondoren, Canada aldera abiatu ginen autobusez. Canadian fruitu arbola ugari, zelai, baso, arto solo, erreka garbi eta zabalak ikusi genituen. Etxe bizitzak egurrez egindakoak dira. Etxe hauetako jabeetako batzuk "Amish" izeneko jendearenak dira. Jende berezia benetan! Gizonezkoek traje eta sonbrero beltza eta bizar zuria daukate; emakumeek, zahar nahiz gazte, erropa ilunak jazten dituzte. Hizkuntza ere berezia dute. Izatez oso aberatsak dira, baina ez diote balore haundirik ematen diruari; oraintxe arte ez zeukaten, ez kotxerik, ez ez argi indarririk, ez eta telebistarik. Oraindik ere ikusten dira zaldidun kotxeak eta olioizko lanparak erabiltzen dituztenak.

Montreal, Toronto, Ottawa, eta Quebec izan ziran Canadian ikusi genituen hiriak: Edifizio haundi berri, metro, tren, tranbia eta autobusak ezinbestekoak. Beste gauza askoren artean, gehien harritu gaituena Montreal-en "Ciudad Subteranea" deitzen diotena izanda: lur azpian 49 kilometrtan zehar zazpi pisuko edificioak, dendak, tabernak, banku etxeak eta abar daude. Montreal-en udan bero eta neguan hotz haundiak egiten duenez, bertako biztaneeek lur azpiko hirian pasatzen dituzte egunak.


Quebec izan da bidaia guz-

tian gustatu zaigun herririk ederrena. Herri aparta benetan! Orain independentzia lortzeko nahian daniltza; datorren urtean izango dituzte hauteskundeak. Herritarren esanetan kalte handia egingo dio Quebec-en independentziak Canada-ri.

Eta bukatzeko, New York-en pasatu genituen azken egunak. New York-en kultura, hizkuntza eta jende ezberdinak batzen dira. Hiri oso handia; edifizioak, ikaragarri altuak; kaleak kotxe eta jendez beteta, pelikuletan moduan. Bertan bizi den jendea edo, oso aberatsa edo oso, pobrea da.

5. Abenidan dituzte etxeak munduko aktore eta aktorea famatuenek eta jende aberatsenak; kanpoko auzoetan ordea, txinatarrak, judutar ortodoxoak, beltzak... bizi dira.

Harlem-go auzo arriskutsua bisitatu genuen. Hamabost egun pasa ondoren, berriro bueltatu ginen gure etxeetara. Hasiak gaude datorren urtean nora joan pentsatzen.



Niagarako urjauzia: neguan izozten bada zerra batekin zuloa eginez arrainak harrapatzen omen dituzte

BILTEGI DENDA

Kirol, Burdin, Menajea.
Zugandik gertu, behar
duzun beste.

SALBADOR 24
Tel: 76 82 06

ZELETA JATETXEA

IÑAKI GOROSTIZA

Eguneroko eta kartako menua
San Roke 2 .Tel: 768151

IBAIBARRIAGA GARRAIOAK

E.Ibaibarriaga
Tel: 768072
Salbador zeharbidea 2
ELGETA

Kaixo Elgetako lagunok!

Euskaldunok ez gara oso zaliak, eta horregaittik oso trebiak, idazten: Gure hartuemonak beti berbaz egin dogu eta idazte hori apur bat urrin gelditu da, hori da, urrin dagoenarekin hartuemonak eukitzeko, eta bestela eskribau eta jakintsu jendian-dako.

Baiña heldu da garai bat berbiak bere balixua galdu dabena, zaratiak berbetarako ahalmena oztopatzen dabena, burrundariak alkar ulertzen lagatzen ez dozku-na... Eta horra hor, euskaldunak be, ezer esateko, edo esaten doguna kontuan eukitzeko, eta esandakua ez aldatzeko, eta abar bat idaztera jo bihar izan dogu!

Poz haundixakin hartu neban Elgetako aldizkarixan sorreria. Gaur egun, herrixan egin leiken ekintza onenetari-kua pentsatzen jata aldizkarixan lan hau; batez be, herrixan nortasuna eta bizittasuna bultzatzeko. Horregaittik zoriondu nahi zaittuet euki dozuen iritzi zuzen eta indar haundi horregaittik.

Dana dala, gauza batek deittu doza kontua (edo atenziñua), iñor gutxik idazten dabela Elgetan ahozkatzan dan moruan.

Badakitt ez dagola araudi edo norma finkaturik, eta bihar bada, apur-apurtxo bat zallagua izango dala norberaren esanguria azaltzia, baiña imajinaziño edo asmo

*Iñor gutxik
idazten dau
Elgetan
ahozkatzen
dan moruan*

apur batekin, ez dot uste hain zalla izango danik.

Gaur egun, Euskaltzaindia bera, bizkaierako hizkerari garrantzi berezi bat emoten hasi da, eta lehenenguan egin zan "Euskera-Batuak" aldakuntza, aportiñu, aberasgarri asko jaso

bihar dittu. Ez ba bildurtu gure jatorrizko zenbait era eta berba erabiltzen; nork daki hainbeste "puritano" eta "jakintsuren" esaerak baiño zuzenauak eta aberatsauak ez diran.

Honek danok esan ondoren, kontua da asmuak eta hasierak benetako ekintza izateko jarraipen bat bihar dabela, eta hamen dago beste kako bat. Lehengo aldizkarirako "kolaboratzaille" asko topatzen dira, eta bigarrenerako gehixau, baña lana luzetzen danian eta "kontuak" akabatzen diranian, egun izendaturako orri idatzi hori gertatziak bere lanak emoten dittu. Errefuerzo moduan bada be, nere zeregiña onartzen badozue, iñoiz azaltzeko asmua badakat nik.

Agur eta hurrengora arte.

Jon Aranzeta Ulazia

HAIZEA
TABERNA

Salbador 5 Tel: 768256 ELGETA



**METALEN
SALEROSKETA**

ANDONI BOLINAGA

Salbador 7
Telf-Faxa: 768064 Elgeta



San Roke ostian

Hilero hilero, erretratu zaharrei eskeintzen diegun tarte honetan makinatxo bat pertsona agertzen dira. Desiratzen gaude gainera etxeko txokoren batean duzun **argazki parregarri, kurioso, zahar, intesgarri edo eta dena delakoa** ikusteko; pozik argitaratuko genituzke argazkiok. Horretarako ezinbestekoa zaigu zuek gurekin harremanetan jartzea. **Bidali** argazkia *Goibekokalera* eta zure laguntzarekin testua landuko dugu.

Argazki honek ez dauka misterio handirik, baina horrek ez du esan nahi argazki kurioa ez denik. Udako edozein egun izan zitekeen, baina arratsalde horretan Eibarreko argazkilaria pasatu zen eta elgetar hauek modelorik kotizatuenak bailiran erakutsi zuten irrifarra.

Nesken artean mutil pare bat ere badaude. Dena den hasi gaitzen izenak aipatzen goitik hasita eta ezkerretik eskubira: **Nerea Aranzeta, M^a Teresa Erostarbe, M^a Karmen Etxeberria, Begoña Telleria, M^a Asun Arozena, Elena Arozena eta Rosarito Agirre.**

Jarrita daudenak: **Garbiñe Etxeberria, Begoñita Arozena, Jose Iñaxio Erostarbe, M^a Karmen Alberdi, Iñaki Etxeberria eta azkena M^o Isabel Iturrikastillo.**

Estampaciones

Elgeta

Estanpaketa orokorra,
Prensa automatizatuak 250 tonaraino,
Serie handietan espezializatu.



EGAÑA
Soldadura

Berriondokua industrialdea 7

20690 ELGETA

Tel. 78 90 61 - Faxe 78 90 14



EGAÑA
Gas
industrialia



**ETXERAKO ETA
INDUSTRIETARAKO**

- BEROGAILUAK
- AIRE EGOKITUA
- GASA

EUSKALDUNON Egunkaria

* **EGUNKARIA:** euskaltzalea, nazionala, baterakoia, zabala, independentea...

* **EGUNKARIA** bizia, modernoa, kritikoa eta berritua eskuartean izan nahi baduzu
EGUNKARIAK arduradun bat izendatu du Elgetarako.

* **EGUNKARIA** berritua: 40 orrialdekoa, maketazio berriari esker bisualagoa,
argiagoa, grafiko gehiagoz, koloreduna... domeketan gehigarri bereziekin...

Ez galdu aukera, egin zaitez harpidedun.

Kontaktu telefona honako hau duzue: 76 80 77 (deitu gaueko bederatzia ostean, Iban)